

## Euskal eskulangintza

---

Orain dela bizpairu urte, urixka bateko kale txiki batean, illunabarrean, guretzat benetan interesgarria zen elkarrizketa entzuten genuan; esku-langintzaz, ain zuzen. Apalurrean, presik gabe, iru edo lau gizon, beren oiturazko solasaldia igaro ondoren, azkeneko itz tantoak ezin agorturik zeuden kale kantoian. Eta aietako bat gure adiskide baitzan, bereala giñan gu aien meza luzagarri. Erri-gizon aiek urteetan aurrera zijoazten, eta bereala ikus genuen ados zeudela, lerro auek amaitzean ematen ditugun iritziekin.

Uri ttipi edo auzo artan, eskulangintzak izan zuan garrantzia ez da txikia, gaurregun oro izkutatua badugu ere, ainbeste baztarretan bezela. Aitortuko dugu ere gure iritzia edo kriterioa sendotua atera zela izpide edo elkarrizketa artatik. Ikasteko ez baida jarrera txarrenetakoa entzuten jakitea eta besteren itzak aintzakotzaz artzea. Bestela maizegi gertatzen baizaigu bide jakiñetik jarraituaz ikusitako gauzekin bakarrik gelditzea. Eta ezin uka jokabide au exkaxa ta tamalgarria dela gizonarentzako.

Aipatutako gizon aien izketa aintzat arturik, laburki, eskulagintzaz mintzatu gara.

Geienbat eskuz egiten dan lanari deitzen diogu eskulangintza. Eginkizun onetan, lantresnaren garrantzia gizonarenaren ondoren edo urrena arkitzen da.

Bañan eskulangintza ez da geldikerian makur eta tinkatuta bizitu. Eskulangillea ez baita izan jokaera onen zalea, baizik eta lanaren etorkizun ona sumatu ezkeru, aurrerakoi argia izan da. Adibidez ikus ditzagun gaureguneko lantegi aundiak, bat baiño geiago eskulangintzaren aldakera edo bilakaeratik elduak, alegia. Lantegi txikietatik luzatuak.

Bañan eskulangintzaren arlotik irten gabe ere, lantegi ttipi auetako langaiak, aurrerakoi joan dira. Garrantzi gutxiko pausoak agian, baiña aurrerantxakoak nola nai ere.

Durangoko ta Tolosako iltzegilleak etzuten lana berdin egiten. Sasoi berdintsukoak izanarren, Tolosako eskulangillea aurreratuago arkitzen zen tek-

nika aldetik. Bizkaitar iltzegilleak txingurean antolatzen zuan bere lana. Nere erritarra berriz, txingurea erabilliarren, eser-aulki tankerako tresna batez baliatzen zen.

Gure artzaien gaztagintzak ere aldaketa izan du. Gaurko artzaiek meta-  
lezko ontzia erabiltzen dute bere lanean; baiña orain dela urte batzuek arte  
zurezkoa izaten zuten. Mendigizon auek matoia eskuz estutzen zuten, gaur,  
ordea, prensaz baliatzen dira, gaztagintzarako alegia. Egun, gaztagintza ur-  
epelez erresten dute; baiña oraintsu urte batzuek arte etzekiten teknika  
onen berri.

Azken urteetan moldatua erosiarren, argizain eskulangilleak izan zuan  
garaia berak lanerako bear zuan metxa antolatzen zuana.

Gurdigillearekin ere berdin gertatzen zen. Zenbait gurdi zaaarren frenu  
edo geldigallua kate bat zen, gurdiaren aurre muturra eta kurpilla bitarteko  
ol luzezka baten biltzen zena. Katean eta luzezka zuran tartean txara  
sendo xamar bat sartzen zen, kurpil aurretik igarorik gurdiaren beste mutu-  
rreiraiño iristen zena. Emendik, gurdia geldiarazi nai zuanean, eragiten zi-  
tzaion txarari kurpillan kanpo aldetik. Au gurdi batzuen geldigallua izanik,  
baziran beste batzuek ere katearentzako zuloa kurpillean eramaten zutenak.  
Baña geldigallu aurrerakoioagorekin ezagutu ditugu gurdiak.

Oroi gaitezen gaureguneko aizkoragilleetaz ere. An emenka nere ibilialdie-  
tan, beren zaarrak baño lan-era aurreratuagoaz jarduntzen ikusi ditugu esku-  
langille auek.

Eskulangintza lan mota au oso orokorra izan da. Antzinara garamazki. Ludi  
onetan gizona agertu zanetik, ia gure egunetaraiño, tramankuluen mendea  
eldu arte, ain zuzen, eskulangintza bizimoduaren ardatza izan da, eta ez nola-  
naiko ardatza ere.

Orokorra izate onek berarekin dakar arriskua eskulangintzaz mintzatzean.  
Euskal eskulangintzari buruz jarduntzean, obeki esateko. Orduan errez eta  
sarri erori baiditeke utsean, erbeste eta gure artean erabiltzen diran eskulan-  
gintza lan-gaiak guk bestek ez balitu bezela artuaz. Ots, gogoan euki bear  
dugu, gizonak bere bear berdiñak asetzeko gauz berdintsuetaz baliatu dela,  
nonai.

Adibidez, ona emen nola gure baserri batzuetako nekazariak lera izeneko  
lantresna erabiltzen duten; baiñan badakigu guretik urrun, toki menditsuetan,  
gurearen berdiña erabiltzen dela. Bearbada berdin berdiñak ez dira izango, gure  
arteko denak ez diranez, baiña bai guk leratzat ezagutzen ditugun motakoak.

«Beia adarretik eta gizona itzetik», esaten digu euskal esaera zaar batek.  
Uztarria, geure uztarria, bere adar-zulo, adar-koska, burulekua –bat edo bi–  
eta ere-zuloekin –bat edo bi ere–, bai ganadu bakarrantzakoa eta berdin bi  
bururentzakoa, lepoezurrean ezarri ta adarretan lotzen da. Baiñan au orrela  
izanik, beste leku batzuetako uztarriak ere onela erabiltzekoak dira.

Orain dela berrogeitamar bat urte arte, gure jende xearen, artzaiaren eta nekazariaren oñetakoa abarka zen. Kuratu gabeko abarkak ikusi omen zituan Euskalerrian, amabi garren mendeko ikuslea izan zen Aymerio Picaud'ek. Baiñan mundu zabalean zear larruzko oñetako asko erabili da.

Zur lan eredu ezaugarriak ere ez dira Euskalerrikoak bakarrik, eta onela jarraituko genuke eskulangintza lan-gai askorekin. Eta aski lan izango genuke or-emenkako eskulangintza parekotzeari ekingo bagenioke.

Onekin garbi utzi nai dugu ezin dela errez eta arinki aldarrikatu eta onartu jatorriz Euskalerrikoa ez bestekotzat edozein eskulangintza. Errezago ibiliko gara egian edo beren inguruan adierazten eta aitortzen badugu zenbait eskulangintza Euskalerrikoa dela; baiñan ez gure errikoa bakarrik. Eta gure oitura zaar eta miñ askorekin gauz bera gertatzen zaigu. San Juan, Eguberri ta lñauterietan ospatzen diranakin, adibidez.

Gizaldi askoren zear, eskulangillea ez da makinapean bizitu. Argindarrik ez du erabili, bere burua izan du motor. Onela ez da arritzekoa geinbat burutsuak izatea, ta ez dira gutxi artista-sena ugari edo nasaiki nabari izanak, askok ez ola ustearren.

Baiñan anitz eskulangilleek badakite beren denbora betiko igarora dela, gizonaren bearra betetzeko beiñik. Bere eskuetatik ateratzen ziran gauz asko gaureguneko bizimoduak, gaurko aurrerapenak, alperrikakoak bezela baztertu dituala. Eskulangillea jabetzen da lantegi aundi ta aurrerakoiekin ezin duala salmentan pareatu, naizta bai lan-gairen ontasunean.

Orrela, gaur bat eta biar bestea, zenbait lantegi ttipi izkutatzen dijoaz, eta beraiekin batean, bizimodua, gauza eta izen asko betiko aazten eta galtzen.

Euskal eskulangintza / Juan Garmendia Larrañaga. -  
En: *Guipúzcoa. Revista informativa de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.* - San Sebastián: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. - Nº 19 (1976), p. 4-5. - OC. T. 2, p. 589-591